

HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

IRAKASLEA: Maddi Barber

DATA: 2020ko azaroa

AZALPENA: Hitzen eta irudien arteko harremanaren inguruan hausnartzen duen ikastaroa.

AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)

1. **Saioa:** Hitzak eta irudiak
2. **Saioa:** Hitzak bilakatzen diren irudiak
3. **Saioa:** Irudietatik abiatzen diren hitzak
4. **Saioa:** Irudietatik abiatzen diren hitzak, saio praktikoa.
5. **Saioa:** Hitzetatik abiatzen diren irudiak
6. **Saioa:** Irudirik ez dagoenean, hitzak
7. **Saioa :** Ekitaldi Irekia, Peru Galbete
8. **Saioa:** Hitzik gabeko irudiak

1. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Saio 1: Hitzak eta irudiak

Saioaren helburu nagusia irudien eta hitzen arteko harremanaren inguruan hausnartzea izan da. Tarot kartak irakurtzen egon ginen hasieran, kartetan agertzen ziren irudiek zer esaten ziguten aztertzen. Maritxu Gulerrek (Uliako sorgin ona) egindako tarot karta batzuekin egin genuen ariketa.

Ikusitako filmetan honelako galderei erantzutea bilatu dugu:

Zer motatakoa da irudien eta hitzen artean sortzen den harremana?

Zer nolako informazioa ahalbidetzen dituzte hitzek, irudien bidez transmititzen ez dena? Eta alderantziz, zer nolako ezagutza ahalbidetzen dituzte irudiek, hitzak bakarrik entzungo bagenitu ez duguna jasotzen?

Zenbait film-zati ikusi ditugu, adibidez:

Chris Marker, LETTRE DE SIBÉRIE, 1957

Chantal Akerman, NEWS FROM HOME, 1977

Maddi Barber, YOURS TRULY, 2018

Klasean Landutako irakurketak:

Jean Luc Godard & Chantal Akerman-en arteko elkarrizketa hitzen eta irudiean inguruan:

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1FRBICyPzqyBr9yjlf9w6-9RNRC0fUIP>

Irakurketa osagarriak:

Pier Paolo Pasolini & Eric Romher, CINE DE POESIA CONTRA CINE DE PROSA, 1970

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1FRBICyPzqyBr9yjlf9w6-9RNRC0fUIP>

Sobre el mostra y el decir, Sarah Kozloff, 2013

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1FRBICyPzqyBr9yjlf9w6-9RNRC0fUIP>

2. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

2. Saioa: Hitzak bilakatzen diren irudiak

Saioaren helburu nagusia muntaia zinematografikoa lengoia moduan ulertzea izan da. Horretarako Kulechov efektuaren inguruan lan egin dugu: Kulechov efektua zinema munduan ezaguna den formula bat da. Zinemagile sobietarrek zinemaren funtzio semantikoa azpimarratu zuten. Hau da “Kuleshov efektuaren” printzipio: planoaren esanahia funtsean aurreko edo ondorengo planoak finkatzen duela. Aurpegi neutro bat jartzen baduzu eta ondoren beste plano bat, sentituko duzu aurpegi hori “X” gauza sentitzen ari dela. Hau da, irudi batek besteari eragingo dio ezinbestean, ulermen berri bat sortuz. Filma edizio gelan eraikitzen dela, Guy Sherwinen elkarrizketan ikusi dugun bezala, filmean agertzen diren erlazioak ez dira errealak, filmaren bidez eraikitzen, errealitatean ez baitira hala gertatuak izan behar. Bere errealitate propioak sortzen du filmak eta materialaren organizazioaren bidez, muntaiaren bidez jarraitutasun bat sortzen da.

Formula honen bidez erabat askatzen dira “errealitateko espazioa eta denbora” filmak sortzen dituenetik. Zinemak sor ditzake bere-bereak diren espazioak, denborak eta ekintzak planoen konbinaketa egokiari esker. Sistema honek permititzen du edozer gauza beste edozerekin konbinatzea zentzu berria emanez. Gehien azpimarratu zuten ideia zera zen, segun eta planoak nola ordenatu esanahi desberdina sor daitekeela. Horren erabileraren bidez kontinuitate narratiboa eraiki daiteke, denbora eta espazioaren jokoa, edo muntaketa asoziatiboan erabiliz diskontinuitatea edo metaforak sortu.

https://www.youtube.com/watch?v=jqi_MtroWA4

Kuleshov izena jarri zioten baina berriki zenbait pertsonak uste dute berak ez zuela berez hau asmatu. Zinemaren hastapenetan emakume asko ziren editoreak, emakumeen lana zen muntaia. Kuleshov irakaslea zen eta 1890a aldera klaserako material moduan egin zituen film demostratzaile hauek, ikusi berri duguna. Baina bere asmakuntza izango balitz bezala heldu zaigu. Berak erabili zuen dagoeneko pelikuletan, eta baita ere beste jende askok. Youtuben dagoen bideo baten arabera, izen aldaketa bat egin beharko litzateke, Kuleshov efektua deitu beharrean, “Editorearen” efektua.

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1zY9YGTqjAP2TiOPVKL-yHBQAba5FwYg>

Gainera, Aitor Gametxoren “Cicha Sinfonía” filma ikusi dugu eta berarekin egin dugu elkarrizketa bat skype bidez. Bere filmean, Aitorrek soinurik gabeko pertsona gorra erretratatu ditu, eskuekin hitz egiten.

Ikusitako filmak:

Guy Sherwin, MESSAGES, 1981-84

Aitor Gametxo, CICHA SYNFONIA, 2017

Klasean Landutako irakurketak:

Guy Sherwin-i egindako elkarrizketa,

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/16E90K4hfGImPw415NHs0LSCWlolzr9Ak>

3. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

3. Saioa: Irudietatik abiatzen diren hitzak

Bresonen testuetan oinarrituz, non zinemaren lengoia propioaren aldarrikapena egiten duen (literaturatik, antzerkitik aldentzen dena), irudietatik abiatzen diren hitzen inguruan hitz egin dugu. Hau da, nola idatzi istorio bat irudietatik abiatuta. Horretarako, adibidez, Sergio Oksmanen "A story for the Modlins" ikusi dugu. Zinemagileak Madrileko kale batean aurkitu zuen ezagutzen ez zuen familia baten argazki zaharrak. Irudi horietatik abiatuta fikziozko istorio bat asmatzen du Oksmanek. Irudiek ahalbidetzen dute lan espekulatibo hori.

Ikusitako filmak:

A story for the Modlins, Sergio Oksman,

Klasean landutako irakurketak:

Robert Bresson, NOTAS SOBRE EL CINEMATÓGRAFO, 1975

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1I0srCyM6zP9FIsUSxloHrEb67rMx8sCX>

Irakurketa osagarriak:

Jonh Berger, OTRA MANERA DE CONTAR, 1997

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1I0srCyM6zP9FIsUSxloHrEb67rMx8sCX>

Sergio Oksmani elkarrizketa,

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1I0srCyM6zP9FIsUSxloHrEb67rMx8sCX>

4. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

4. Saioa: Hitzetatik abiatzen diren irudiak

Ikasleek irudi bat ekarri zuten aurreko astean eta irudi horiek klasean landu ditugu. Zer motatako hitzak iradokitzen dituzte irudiek? Klasean landutakoa kontuan hartuta 4. saiorako testu bat ekarri dute, irudi horiekin harremanetan jartzeko. Saio praktikoa izan da. Banaka edo binaka grabatzen egon dira, gero nirekin batera bideo horiek editatu ditugu. Erabakiak hartu behar izan dituzte, hitzak nola agerti? (off ahotsaren bidez, testu baten bidez). Ariketa honen bitartez hitza eta irudiaren arteko harremana landu dugu.

Hemen emaitza.

<https://vimeo.com/483057930>

pasahitza: hitzaetairudia

5. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

5. Saioa: Hitzetatik abiatzen diren irudiak

Aurreko saioan egindako bideoa ikusi eta elkarrekin ordena logiko bat ematen saiatu gara. Izenburu bat ere jarri diogu: ATALAIA.

Bestetik, hitzetatik sortzen diren irudien adibideak ikusten ibili ginen, hala nola, IRUDI MINTZATUEN HIZTEGI POETIKOA, eta EURITAN.

Gero, ANARIREN hitzekin hasi ginen. Taldeka hasi ginen hitzak lantzen hurrengo galderen bitartez: Zeintzuk dira agertzen diren irudiak? Zeintzuk dira kantuen irudi nagusiak? Hitz hauek kolorea balute, ze kolorea izango lukete (hotza, beroa...)? eta mugimendu bat izango balute, ze mugimendu izango lukete? Eszena estatiko bat da edo mugimenduan dago? Nola jarri irudiak dagoeneko irudiak dauzkaten letrei, errepikapenean, ilustrazioan erori gabe? Zer du berezkoa bideoak hitzen bidez heldu ezin dena? zer jarri dezakegu, orduan?

Idea batzuk atera ziren taldeetan eta hurrengo klaserako bakoitzak proposamen bat ekartzea erabaki genuen: bideo bat, minutu batekoa gutxienez.

Ikusitako filmak:

Maria Elorza, Maider Fernandez, Aitor Gametxo, IRUDI MINTZATUEN HIZTEGI POETIKOA, 2016

Arantza Santesteban eta Irati Gorostidi, EURITAN 2018

6. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

6. Saioa: Irudirik ez dagoenean, hitzak

Nire film baten inguruan hasi ginen, URPEAN LURRA. Gero, JO TA KE, Aitziber Olaskoagaren filma ikusiko genuen elkarrekin eta berarik hitz egiteko aukera izan genuen. Aitziber Olaskoagaren filmak irudien ukapenaren inguruko hausnarketa bat egiten du. Zinemagileari leku batzuetan eta irudi batzuk erakusteko aukera ukatzen zaionean, beste estrategia batzuk bilatu behar ditu, hala nola, hitzak erabiltzea leku eta irudi horiek deskribatzeko. Modu honetan irudien/hitzen arteko botere-harremanen inguruan hausnartu dugu.

Shoah filmaren zati bat ikusi dugu (lehenengo 12 minutuak) eta horren inguruan ibili ginen eztabaidatzen Holocaustoa bezalako gertakariak nola erakutsi daitezkeen irudi edo hitzen bidez.

Ikusitako filmak:

Aitziber Olaskoaga, JO TA KE, 2020

Maddi Barber, URPEAN LURRA, 2019

Claude Lanzmann, SHOAH, 1985

Landutako testuak

Georges Didi-Huberman, Imágenes pese a todo, Memoria Visual del Holocausto, 2004

Ilana Feldman, Imaginar, pese a todo: problemas y polémicas en torno a la representación del holocausto, de shoah a el hijo de Saul, 2018

7. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Saio Irekia: Peru Galbete

URAREN OLDEA Kontzertu musikal-bisuala

Uholde batek harrapatutako familiako diapositiba zaharrak berreskuratu eta oinarritzat hartu ditu Peru Galbetek sentikari hau sortzeko. Urak beste esanahi bat eman die irudiei, denborak oroitzen eraldatzen dituen modura. Eta ain zuzen ere, zuzeneko kontzertu musikal-bisual honek, memoriaz, oroitzen, denboraz eta garenaz hitz egin nahi du. Soinua eta musika ere, ahots efektu eta loop-en erabileraz, denboran joan-etorrika dabil, ohartzeko azkenik ez dela besterik oraina baizik.

8. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

8. Saioa: Hitzik gabeko irudiak

Anariren kantuei irudiak jartzeko arikerekin jarraitu genuen.

BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

Ikusitako filmak:

Guy Sherwin, MESSAGES, 1981-84

Aitor Gametxo, CICHA SYNFOPIA, 2017

Chris Marker, LETTRE DE SIBÉRIE, 1957

Chantal Akerman, NEWS FROM HOME, 1977

Maddi Barber, YOURS TRULY, 2018

Sergio Oksman, A STORY FOR THE MODLINS, 2012

Maria Elorza, Maider Fernandez, Aitor Gametxo, IRUDI MINTZATUEN HIZTEGI POETIKOA, 2016

Arantza Santestabn & Irati Gorostidi, EURITAN, 2018

Aitziber Olaskoaga, JO TA KE, 2020

Claude Lanzmann, SHOAH, 1985

Maddi Barber, URPEAN LURRA, 2019

Kontzertu musikal-bisuala

Peru Galbete, URAREN OLDEAK, 2020

Klasean Landutako irakurketak:

Guy Sherwin-i egindako elkarrizketa,

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/16E90K4hfGImPw415NHs0LSCWlolzr9Ak>

Jean Luc Godard & Chantal Akerman-en arteko elkarrizketa hitzen eta irudien inguruan:

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1FRBICyPzqyBr9yjlf9w6-9RNRC0fUIP>

Pier Paolo Pasolini & Eric Romher, CINE DE POESIA CONTRA CINE DE PROSA, 1970

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1FRBICyPzqyBr9yjlf9w6-9RNRC0fUIP>

Sobre el mostra y el decir, Sarah Kozloff, 2013

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1FRBICyPzqyBr9yjlf9w6-9RNRC0fUIP>

Robert Bresson, NOTAS SOBRE EL CINEMATÓGRAFO, 1975

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1I0srCyM6zP9FIsUSxloHrEb67rMx8sCX>

Jonh Berger, OTRA MANERA DE CONTAR, 1997

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1I0srCyM6zP9FIsUSxloHrEb67rMx8sCX>

Sergio Oksmani elkarrizketa,

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1I0srCyM6zP9FIsUSxloHrEb67rMx8sCX>

Georges Didi-Huberman, Imágenes pese a todo, Memoria Visual del Holocausto, 2004

<https://drive.google.com/file/d/1CzHoSCwSQyKw2EVXWnEcF5CwBUKrQbmV/view?usp=sharing>

Ilana Feldman, Imaginar, pese a todo: problemas y polémicas en torno a la representación del holocausto, de shoah a el hijo de Saul, 2018

<https://drive.google.com/file/d/1GXbBY8aCYbJDJhs1UN2D3o4Y0WSsdQV9/view?usp=sharing>

